# NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA EUROPAN

ZER LEKU DU PROIEKTU SINDIKALETAN?

Adelheid Hege – Bilbao, Seminario internacional – 2 octobre 2017

- Epe luzeko begirada sindikalismoen eboluzioei eta sistema desberdinen ezaugarriei, zeintzuetan eboluzio horiek gertatzen diren
- Sistema sindikal desberdinak: garai desberdinetara egokitzapena, gizartearen errekonozimendua, araudi juridikoa, pluraltasuna, arkitektura organizazionala…

- Krisi sindikala, sistema sindikal oso desberdinak batzeko elementua?
- Negoziazio kolektiboek erresistitzen dute nahiz eta afiliazio galera handiak egon?
- Negoziazioak eta elkarrizketa sozialak konpentsatu egiten ote dute sindikatuek langileen artean, bere aniztasun osoan, duten inplantazio eskasa?
- Epe luzeko begiradak erakusten du negoziazio kolektiboari egokitu zaion rolaren eboluzioa

**1. Haurdunaldi sozialaren garaia** (‘50-80 urteak, kasuak kasu)

- Autonomia beroko Italia
- Soldata elkartasunaren Suedia
- 35 orduen eta gatazkaren errekonkistaren Alemania
- Autoeraketaren Frantzia
- 5. boterearen erregimenaren menpeko Bretainia Handia (BH)

- Oinarri sindikal desberdinetatik abiatuta, ongi komunaren eta langile-duintasunaren ideia bat inposatzea lortzen zuten sindikatuek, integrazio gaitasun handia erakutsiz. Bizitza sozialean posizio zentrala eskuratzen dute
- Rol politikoa aldarrikatzen dute arlo profesionaletik haratago, alderdi lagunekin dituzten loturak erabiliz
- Negoziazio kolektiboa instrumentu bat da, herrialdeen arabera gehiago/gutxiago baloratua, baina ez da azken jomuga

## 2. Beheraldiaren eta institutzioen defentsaren garaia (1980/90 urteak)

- Sindikatuek afiliatuak galtzen dituzte, baina haien boterea ez da ezbaian jartzen (Bretainia Handian ezik)
- Negoziazio kolektiboari gehiago eskatzen zaio, maila globalean (itun sozialak), lokalean (enplegua, lan baldintzak) eta bitartekaritzan (berregituraketak)
- Eskubide berriak sortzen dira (batzorde europarrak)
- Sindikatuak erantzuna bilatzen diote duten botere araugilea zalantzan jartzen duen afiliazio galerari: fusioak, *organizing*

- Ikuspegi makro sozialak, holistikoak, indarra galtzen du ikuspegi teknologikoago edo profesionalago baten aurrean, sindikatuari negoziazioan ematen zaion rolean
- Negoziazioan eta elkarrizketa sozialean aritzeak badirudi zilegitasun bat ematen diela inplantazio faltagatik ahulduta dauden sindikatuei
- Hirugarren eragileekin antolatzen dituzten topaketek berek garrantzia handiagoa dute topeketa hauetan lortzen diren emaitza kaskarrek baino
    - «Itun sozialek», nahiko maiz, atzerakadak dakartzate babes sozialean

## 3. Bazterketa politiko, soziologiko eta sozialaren garaia (2000 ondoren)

- Alemaniako Hartz legeak sindikatuen botere politikoaren galeraren erakusle dira
- Desberdintasunak handitzen doaz
- Estatuak bere nagusitasuna inposatzen du arau sozialak ezartzerakoan
- Lan harremanetan esku hartuz (ordezkaritza (F, I, A), gutxieneko soldata (A), negoziazio kolektiboaren erreforma…)

- Organizazio solidoa duten arren, sindikatuak eztabaida sozialetatik baztertuak dira
- Hurbilketa berritzailerik ez da gauzatzen
- Negoziazio partzelarioetara mugatuta, sindikatuek desberdintasun sozialen solidifikazioan laguntzen dute
- Negoziazioaren dezentralizazioa oso argigarria da: sindikatuak ez daude soldatapekoak, beren aniztasun guztian, dauden tokian

Estrategia berbideraketak eta atzera pausuak:

Arazoa batez ere kanpoan jartzen da (globalizazioa, neoliberalismoa, eraldaketa ekoizpenean, teknologian, soldatapekoetan…)

Baina: zein da sindikalismoaren rolaren «despolitizazioak» ekarri duen rol berria?

« *Negoziazioa bere horretan jomuga bihurtuta, helburu gabe, balore eskalarik gabe, lehentasunak hierarkizatu gabe*» - «*burokratizatutako*» aktoreek, impasse estrategikoan, galdu dute «*gizarte garaikideari buruz, gatazka sozialaren eraldaketa eta desartikulazioari buruz, eta subjektibotasun berrien sorrerari buruz hausnarketa egiteko gaitasuna» ?* 90 urteetan Bruno Trentin lider sindikal italiarrak idatzitako galdera